



**Zerbitzuaren proposamena.**

**Izapidetzea:** Deialdia egitea eta dirulaguntzak ematea.

**Gaia:** Gizarte- eta kultura-arloko, kirol-arloko eta natura-ingurunea sustatzeko ekimenak finantzatzeko dirulaguntza 2025.

**ZERBITZUAREN PROPOSAMENA**

Udal honen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan, honako dirulaguntza eta laguntza hauek ematea aurreikusten da:

|                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
|-----------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>DIRULAGUNTZAREN XEHETASUNAK</b>      | Gizarte- eta kultura-arloko, kirol-arloko eta natura-ingurunea sustatzeko ekimenak.                                                                                                                                                                                                                        |
| <b>Gaia</b>                             | Kultura, Kirola eta Ingurunea.                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>Arloa</b>                            | Udalerria                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <b>Eskumena duen erakundea</b>          | Alkate-Udalburua                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <b>Onuradunak</b>                       | Barrundiako udalerrian erroldatutako edo udalerrian jarduerak eta/edo zerbitzuak ematen dituzten elkarteak eta/edo pertsona fisikoak.                                                                                                                                                                      |
| <b>Xedea</b>                            | Barrundiako udalerrian erroldatuta dauden edo udalerrian jarduerak eta/edo zerbitzuak ematen dituzten elkarteak eta/edo pertsona fisikoek garatutako gizarte- eta kultura-arloko, kirol-arloko eta natura-ingurunea sustatzeko ekimenak finantzatzeko dirulaguntzak jaso ahal izateko baldintzak arautzea. |
| <b>BDNS Kodea</b>                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <b>Aurrekontu-partidaren zenbatekoa</b> | 3.800,00 € (334.481.005) ; 1.200,00 € (341.481.009)                                                                                                                                                                                                                                                        |

2025eko ekitaldirako aurrekontu orokorrean, aurrekontua betearazteko udal-arauaren V. eranskinean, Barrundiako udalerrian erroldatuta dauden edo udalerrian jarduerak eta/edo zerbitzuak ematen dituzten elkarteak eta/edo pertsona fisikoek garatutako gizarte-, kultura-, kirol- eta natura-ingurunea sustatzeko ekimenak finantzatzeko oinarriak jasotzen dira.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikularekin bat etorriz, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 58. artikularekin bat etorriz, Zerbitzu honek proposatzen du aipatutako dirulaguntza emateko deialdia onartzeko izapideak hastea.

**IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA**